





...eta **kitto!**

718 zkia. 2010-IV-23

ASTEKARIA

TOKIKOM



ARGAZKIZ BETETAKO



hilabetearen aurrean



KOMUNITATEEN

ADMINISTRAZIOA

Tel: 943 70 25 40

KOMUNITATEAK

- Auzo komunitateen administrazioa
- Etxebizitza, garijari, industria...
- Jaureritzaren dirulaguntzen transmisioa

AHOLKULARITZA

- Fisikala
- Laborala
- Kontabilitateak
- Aseguruak

© 2010 KEIN GROUP. B-101-10000
Tel: 943 70 25 40 Fax: 943 20 11 70
Email: komunikazio@kein.com



IRAZABAL

clínica dental


Julian Etxeberria, 12 - 1. esk.

Tel. 943 208552

*Udaberri honetan
zure irribarrea modan*



ANTONIO MURILLO Doktorea:
Masterra Periodontzian eta Inplantologian



AINHOA ZULUETA Doktorea:
Odontologia



**DIAGNOSTIKOA
KONPROMISO GABE**

**BENETAKO
PAZIENTEAREN
IRUDIA**

DESAFIOA EIBAR LEA-ARTIBAI

Xabat Gallettebeitia
Iratxe Ibarra
Joseba Artze

VS

Jon Mikel Mujika
Julen Sololuze
Mikel Arrillaga

BERTSO-AFARIA
MAIATZAK 7 21.30etan

SARRERAK
...ETA KITTO!-n
18 € (bazkideak 15)



ARGITARATZAILEA:

...eta kitto! Euskara Elkartea
HELBIDEA:

Urkizu, 11 - solairuartera
20600 Eibar

TELEFONOAK:

943 20 67 76 / 943 20 09 18

FAXA:

943 20 28 72

Astekariaren E-MAILak:

erredakzioa@etakitto.com

komunikabideak@etakitto.com

publizitatea@etakitto.com

Elkartearen E-MAILak:

elkartea@etakitto.com

normalizazioa@etakitto.com

ERREDAKZIO-KONTSEILUA:

Itziar Albizu

Jose Luis Gorostegi

Silbia Hernandez

Koldo Mitxelena

Ekhi Belar

ADMINISTRAZIOA:

Marisol Uriarte

KOORDINATZAILEA:

Koldo Mitxelena

ERREDAKZIO-BURUA:

Silbia Hernandez

DISEINUA ETA MAKETAZIOA:

Jose Luis Gorostegi

ARGAZKI ARLOA:

Maialen Belaustegi,

S. Hernandez eta E. Belar.

HIZKUNTZA ARDURA:

Juan Andres Argoitia

Maidar Aranberri

PUBLIZITATEA:

Itziar Albizu

Belen Ulazia

Tfnoa: 943 20 67 76

AZALEKO ARGAZKIA:

Rafa Herrero

BANAKETA-ARDURADUNA:

Ainhoa Luz

TIRADA:

7.950 ale

INPRIMATEGLA:

GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A:

...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA:

SS/430/92

ISSN: 1132 - 1679

(*...eta kitto!* ez du bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako esanen
eta iritzien erantzunkizunik)

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskerara

GALDA.- Gori. Normalean eguzkiaren berotasuna adierazteko erabiltzen da. "Egurdiko ezki galdia hartu genduan Elosura heldu baiño lehen".

GALDAU.- Sutan gorituta jarriz, bi burdina zati bat egin. "Errementarixari ertain biharko detsazuz zati bixak galdatzeko".

GALDUAZ IKASI.- Galtzeak ematen duen esperientzia jaso, erakutsia norbereganatu. "Galduaz ikasten da mundu honetan, askotan narrutik pagauta".

ESKUTITZAK

ABC IZAN ZENAREN BEHARGINEI

Enpresako zuzendaritzarekin -edo, hobeto esanda, euren ordezkariekin- izandako azken bileran, nominaren konfekzioa kanpora ateratzeko erabakia jakinarazi zigun, lan horiek Donostiako Sayma S.A. enpresak hartuko zituela, hain zuzen.

Aldi berean, nominako kontzeptuetan izango ziren aldaketan berri eman zitzaigun, probintziako hitzarmenaren (konbenioaren) baloreetara jaitsiko zirela eta gaur egungo salarioarekiko aldea behargin bakoitzaren izaera pertsonalaren arabera koplusera desbideratzeko asmoa gureganatuz.

Orain arte nominak egin dituen Asier Tolosaren egoeraren inguruko gure zalantzei erantzunez, erabaki horrek plantilaren iraupenean inolako eraginik ez zuela izango esan ziguten, nominen ardurara bere lanaren %5 besterik ez zelako; aldi berean, hilaren 19rako bilera egitea hitzartu zen erabaki hori (enpresak ezin ditu salario kontzeptuak aldatu beharginen ordezkariekin adostu barik) eta enpresa-paktua eta intzertibatutako kanporatzeak (borondatezkoak zein aurrejubilazioak) tratatzeko -enpresa ordezkariak "aurrera doazela" dio-.

Handik egun gutxira eman den justifikaziorik gabeko Asierren kanporatzeak argi erakusten du "enpresaren hitzak" ez duela inongo baliorik eta

larriagoa dena: lan-postuei eusteko erakusten duen konpromiso-eza nabarmena, inolako lotsarik gabe adieraziz lanpostu hori bekadun batek beteko duela.

Ezin dugu kaleratze hori kontratu amaieratzat hartu eta, 2010ean sartu diren ordu-extrak kontabilizatuta, esan dezakegu lankide baten kalera-iztearen aurrean aurkitzen garela. Horren justifikazio bakarra da ohiko borrokoaren kapritxoa eta ugazaben pasibotasuna.

Horregatik guztiagatik, bekadun izenarekin esplotazio erregimenean dihardutenei (gaur egun lau dira) kontratu zuzenak egitea eskatzen dugu eta, baita, kaleratutako gure lankidea berehala enpresan hartzea.

Eskatutako bidetik joko ez balu, ulertu beharko genuke enpresak lanpostuak suntsitzearen aldeko eta eskubiderik gabeko eta betebeharrak guztiak dituzten 2. mailako beharginen kolektiboa sortzeko apustua egin duela. Eta greba desblokeatzeko akordioarekin (bost hilabetetan inor ez kaleratzea, tartean plantilla lan-kargei egokitzeko bide ez traumatikoak erabiliz -aurrejubilazioak eta intzertibatutako irteerak-) apurtuko luke.

ABCko ENPRESA BATZORDEA

asteka HEMEROTEKA esaldiak

"Pazientea etsai? Badago AEBetako osasun etxean atarrietan ateratzen diren paziente guztiei medikua salatze-ko gonbidapena egin zain egoten diren abokatuen inguruko istorioa. Nik izandako esperientzia batek ere zalantzan jarri dizkit askoz nahiago nituen konfiantzan oinarritutako harremanak. Eta, horrela jarraituz, laster okinak berak papera sinaraziko digu, erosi dugun ogiak kalte egiten badigu bere burua babesteko"

(Oier Gorosabel, fisioterapeuta eta osteopata)

"Europarrok eta asiarrak izan gara Somaliako lehenengo piratak, mugarik gabeko arrantzan jardunez eta hango inguruak zabor erradiaktiboez betez. Gainera, arraina jatearena moda bat besterik ez da. Munduan mila milioi indiar daude arrainik jaten ez dutenak; begeterianoak dira eta ez dirudi horren beharrik dutenik. Bitamina D, C, fibrak... sasoiari sasoi modak. Behar dugun bakarra da dieta orekatu bat jarraitzea"

(Daniel Pauly, biologoa eta ozeanografoa)



EIBARKO
UDALA



GIPUZKOAKO
FORU
ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDETZA)



Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzako Kultur Sailak eta Kutxak diruz lagundutako aldizkaria

autuan

CARLOS PLAZAOLA PRAKTIKANTEA HIL DA

Astelehenean hil zen, 83 urterekin, urte askoan Eibarren praktikante lanean jardundako Carlos Plazaola Oñatibia. Orain dela urte bi, 2008ko maiatzean, kolegiatu zela urrezko ezteiak betetzen zirela-eta, Gipuzkoako Erizaintza Kolegioaren omenaldia jaso zuen. Betsalde, Aste Santuan hil zen Javier Juárez Rozas Uni-ko irakasleak lankide eta lagun omenaldi beroa jaso zuen aurreko astean.

BESTE 5,7 MILIOI EURO

Loteria Primitibako sari nagusiak 5,7 milioi euro laga zituen gurean aurreko astean, eguenerako zozketan. Maite Arriolaren Urkizuko kioskoan erori da azken sari handi hori eta bigarrena da ia jarraian gure herrian, orain dela hilabete 11,3 milioi eurokoa jausi baitzen Amañako liburudenda batean. Eguenerako zegoen botea biren artean banatu da, bakoitzari 5,7 milioi euro egokituz.

IPARKUTXAREN BULEGOA

Martitzenean, hilaren 27an, Iparkutxak bulegoa zabalduko du Julian Etxeberria kalean. Inaugurazio ekitaldia 19.00etan izango da eta hurrengo egunean, berri, motordun patineteetan ibiltzeko aukera izango da, goiz eta arratsaldean.

“Merkalitatea” ziurtagiria eibartarrentzat

EIBARKO 20 MERKATARIK UNE 175001 ZIURTAGIRIA JASO ZUTEN DOMEKAN DONOSTIAN, Miramar jauregian. Ekitaldian honakoek jaso zuten “Merkalitatea” bereizgarria Gipuzkoako Merkatarien Federazioaren eskutik: Benicoba, Afede, Jeronimo, Gorritz, Mugika, Artamendi, Rezola, Arregi, Beitu, Plazaola, Irritsa, Iturri, Jauregi, Lotara, Dibutec, Ansa, Agirre, Infosec eta Calbeton dendeak. Eibartarrekin batera Azpeitiako Odriozola harategiak eta Elgoibarko Kala loradendak jaso zuten ziurtagiria.

“Merkalitatea” bereizgarria lortu ahal izateko,



merkatariek ikastaro berezia egin behar izan dute eta, horrez gain, ebaluazio prozesu batean parte hartu. Behin bereizgarria lortuta, pauso bat aurrera eman nahi dute eta Eusko Jaurlaritzak sortu berri duen Q Merkalitya ziurtagiria eskuratzeko ikastaroak antolatu dituzte. Maiatzean hasiko dira ikastaroak eta dagoeneko 24 merkatarik eman dute izena.

Haitiren aldeko jaialdia

COLISEOAK HAITIREN ALDEKO JAIALDIA HARTUKO DU MAIATZAREN 14-EAN 20.30ETATIK AURRERA. Eibarko parrokia arteko misio taldeak antolatu du saioa eta jaialdiari esker batzea lortzen duten dirua Karitateko Mesedetako mojei emango diete, hondamendia eta gero Haitin egiten diharduten proiektuak garatzen laguntzeko.




Aipatutako egunean egiteko den jaialdian, besteak beste, dantza, kantu eta musika ikuskizunaz gozatzeko aukera izango dela aurreratu dute antolatzaileek. Pili Alonsoren ballet eibartarrak hasiko du saioa eta, ondoren, Musika Eskolako mariatxiak, Goruntz abesbatzak, Eibarko Koro Gazteak, Musika Eskolako soka, gitarra eta bibolin taldeak eta Nerea Lodosaren dantza garaikideok parte hartzea dago aurreikusita. Saioa Teatro Interior taldeko Ernesto Barrutia eta Maite Lorentzok aurkeztuko dute, eta sarrerek 12 eurotan ipini dituzte salgai.

Errenta Aitorpenaren kanpaina abian

ERRENTA AITORPENAREN KANPAINA BERRIA MARTITZENEAN, APIRILAREN 20AN ABIATU ZEN eta ekainaren 25era arte iraungo du. Hala ere, errenta autolikidazio proposamenak hilaren 14az geroztik onartu daitezke


eta errenta mekanizaturako aurretiko txanda hartzeak astelehenetik egin daitezke. Eibarko Arraguetako bulegoetan txanda eskatu daitezke 902100400 telefonoan, astelehenetik barixakura, 08.30etatik 14.00ak arte.



Jose Arregi Gurutzeta (2009-IV-24)

I. URTEURRENA

Haren aldeko meza ospatuko da apirilaren 24an (zapatua), arratsaldeko 19.00etan, KARMENgo Amaren parrokiari.




Eibar, nagusien lagun

GAUR EGUERDIAN AURKEZTU DUTE PORTALEAN PERTSONA NAGUSIEN XVII. HAMABOSTALDIA.

“Eibar, pertsona nagusien lagun izan nahi duen hiria” izenburuari jarraituta, apirilaren 23tik maiatzaren 7ra arteko programazioa prestatu dute antolatzaileek. Astelehenean, ohikoa den moduan, pertsona nagusien ibilaldiarekin abiatuko dira. Juan Luis Mugerza gogoan 16.00etan hasiko da ibilaldia, Untzagatik Azeitango industrialdera. Apirilaren 27an, berriz, txokolate-jana eskainiko dute 16.00etan San Andres Egoitzan (bertakoentzat bakarrik). Hurrengo egunerako liburutegira eta Armagintzaren Museora bisita gidatuak prestatu dituzte (liburutegira bisita 11.00etan izango da eta Museora 16.30etan). Eta apirilaren 29rako, berriz, mendi ibilaldia antolatu dute, Atxondora. Irteera autobus geltokitik egingo dute, 10.30etan. Bazkaria Elorrioko Hotelean izango da, 14.30etan. Ondoren dantzaldia egongo da.

Maiatzean jarraituko du programazioak: maiatzaren 3an toka, petanka eta igel-toka txapelketa jokatu da, Ipuruko bola-



tokian, goizeko 11.00etan hasita; 5ean, zarzuela emanaldia izango da, 18.00etan Untzagako jubilatutako etxean; 6an txokolate-jana egingo da, oraingoan Ego gain Gerontologia Zentroan; eta egitarauarekin amaitzeko, maiatzaren 7an sukaldaritza lehiaketa egingo da. Ondoren herri bazkaria eta dantzaldia egingo dira, Legarreko frontoian. Lehiaketa 11.00etan hasiko da eta bazkaria 14.00etan. Izen-ematea Eibarko jubilatutako etxeetan egin behar da, maiatzaren 4a arte (5 euro). Horiez gain, maiatzaren 4ra arte Imanol Elorza eta Inma Elorzaren artelanak ikusgai daude Untzagako jubilatutako etxean. Astelehenean barixakura 19.15etatik 21.15etara zabalik dago eta zapatu eta domeketan 12.00etatik 14.00etara).




Toribio Etxebarria Sariak 26an

APIRILAREN 26-AN, ASTELEHENA, EZAGUTUKO DIRA XX. TORIBIO ETXEBARRIA SARIEN IRABAZLEEN IZENAK EIBARKO UDALAN. Euskadiko Ikasketa Berritzailearen sari hauek lortzeko finalistak eman dira jakitera, lau ‘Enpresa berrien’ atalean eta bost ‘Ideia/Proiektu enpresarialen’ atalean. ‘Enpresa berrien’ mailan honakoak dira finalistak: Mendaroko Gorosabel, Bizkaiako Anboto, Antzuolako Matz Erreka eta Donostiako Nem Solutions. ‘Ideia/Proiektu enpresarialen’ maila, bestetik, hauek lor dezakete lehen saria: Arabako Blueagro, eta Donostiako Desmoplat, Innovate&Transport, Lexinder eta Tires-Textiles.

anzorik anzo

Tallarra Jardinetan zabaldu nahian

Asua Errekatik Jardinetara saltoa emateko ahalegina egin zuten Tallarra gaztetxeokoe aurreko barixakuan. Erredakziora helarazi diguten gutunean azaltzen dutenez, “*Jardiñeta auzotik dator berria, gaztetxe berri bat okupatu dugu. Orain arte Asua Erreka kaleko Tallarra gaztetxean 8 urtez egon garen gazte-taldea gara*”. Hirigintza sailean Asua Errekarako dauden proiektuen ondorioz orain arteko gaztetxea desagertu egin da, gazteen berbetan: “*Tallarra gaztetxea bota nahi dute eta, horren ordez, gure beltzetan dauden lokal zikinertara bidali nahi izan gaituzte. Hori ikusita, eta gure kabuz gestionatutako dugun espazio bat bilatzeko asmoarekin, hainbeste urtez hutsik eta hilda degon den Villa Rufina etxea berpiztu eta gaztetxe moduan erabiltzea aukeratu dugu*”. Hala ere, okupazio baketsua izan behar zuen ez zuen izan espero zuten amaiera: “*Barixakuan goizeko 10.00etan aipatutako etxean, eta zabalik zegoen atetik sartu ginen eta berehala beharrak banatzeari ekin genion: auzolagunak jakinaren gainean ipini, garbiketa lanak hasi eta jabearekin kontaktatzea. Baina 11.00ak aldera ertzainak ailegatu eta indarrez, pimenta-espraia eskuan zeramatela eta gure segurtasuna arriskuan ipinita, zazpi lagun identifikatu arazi zituzten, usurpazioa eta kalteak leporatuta*”.



Saratsuegira Barrenatik joan beharko da


Zapatuan inauguratu berri duten Barrena-Saratsuegi biala eta Iparragirre kalea lotzeko beharrak direla-eta, aste honetan bertan itxi egin dute Iparragirretik Saratsuegira doan bidea eta, aurrerantzean, beharrak amaitu arte, gutxi gorabehera hilabete bateko epean, Saratsuegira joateko Barrenako errepedea erabili beharko da.

eibar kalea

Errekatxu kalea

Errekatxu kalea Bista Eder kaleruntz, behera doa batetik eta, bestetik, Arane kalera. Azken Hirigintza Antolamendurako Plan Nagusiaren arabera, inguru guztia birgaitzeko asmoa jarraituta, hor dauden etxeetako batzuk ordenazioz kanpo geratuko lirateke, baina oraingoz ez da aldaketarik izan kalean.

Pegora kopurua: 18. Erroldatutakoak: 430.




asteko
2.200
datua

kontsulta jaso zituen Udal Kontsumo Bulegoak azken urtean eta, euretatik, 217k erreklamaziorako urratsa egin zuten. Erreklamazio horien emaitza, gainera, positiboa izan da %20an. Kexa gehienak (1.275 zuzenean, 820 telefonoz eta 105 internetez) telefoniarekin doaz lotuta.



Globoak istripuan hildakoen alde

ELGOIBARKO AUTO ISTRIPUAN HIL ZIREN LAU GAZTEEN LAGUNEK OMENALDI MODUKOA EGIN NAHI IZAN ZIETEN aurreko barixakuan, Untzagan jende mordoak batu zuten omenaldian. Aurretik gazteen lagunek berba batzuk eskaini zituzten ekitaldian batutakoei eta, ondoren, 500 bat globo askatu zituzten udaletxe inguruan, hildako gazteei zuzendutako mezuekin. Tuenti sare sozialaren bitartez egindako deialdiari erantzunez



batu ziren gazteak eta Udalak ekitaldian lagundu nahi izan zuten, globoak puzteko helio botila bi eskainita. Bestalde, aurreko barixakuan Portalean inauguratutako institutuko ikasleen erakusketan, ikastetxe berean ikasten ziharduen Lidia Juncal Fernándezi eskainitako koadroa ikusgai ipini zuten. Ikasle eta irakasleen artean egindako artelanarekin omenaldia egin nahi izan zioten istripuan, beste hiru gazteekin batera hil zen ikaskideari.

Euskaraz Bizi Eguna EHE-rekin

MAIATZAREN 2-AN ETXARRI-ARANATZEN EUSKARAZ BIZI EGUNA OSPATUKO DA, AURTEN 30 URTE BETETZEN DITUEN Euskal Herrian Euskaraz-ek antolatuta. Elkartetik adierazitakoaren arabera, *“2004an EHEk lehenengo Hizkuntza Eskubideen Eguna ospatu zuen Lesakan eta, ibilbide luzea egin ondoren, aurten lehenengo Euskaraz Bizi Eguna antolatu dugu. Maiatzaren 2an Etxarri-Aranatzen herri euskaldunaren aldeko mezua zabalduko dugu, euskaraz bizi nahi dugu, eta hori irudikatuko dugu Sakanan”.*

Elkartearen ordezkariak diotenez, *“egin nahi dugun bidean eragiteko denon ekarpena ezinbestekoa izango denez, egun horretan denek parte hartzea nahi dugu. 10.00etan hasi eta iluntzera arteko egitaraua antolatu dugu, haur, gazte eta helduentzat aproposa. Euskaraz bizi nahi dugula aldarrikatzeko eta ondo pasatzeko aukera izango dugu domekan”.*

Eibartik Etxarri-Aranatzera joateko autobusa



antolatu dute: irteera goizeko 09.15etan izango da, Ego-gainetik, eta buelta, berriz, arratsaldeko 19.30etan. Egun osorako prestatu duten egitarauaren barruan herri bazkaria egingo da. Bazkari-ko txartela eta autobuseko txartela 20 euroren truke ditugu eskuragarri. Joateko asmoa duenak eibar@euskalherrianeuskaraz.org helbidera mezua bidali dezake eta antolatzaileek autobuserako tokia zein bazkarirako txartela gordeko diote hala eskatzen dutenei.

Internet Eguna egingo da Astelenan maiatzean

EUSKADIN URTERO HERRI BATEAN EGITEN DEN INTERNET EGUNAK SEIGARRREN EDIZIOAN GURE HERRIAN IZANGO DU KOKAGUNEA.

Miguel López de Gereñu zinegotziak emandako prentsaurrekoan ekitaldia antolatzeko Irunekin egon den lehia aipatu zuen, Eibarrera ekartzeak duen garrantzia azpimarratuz. Iaz Mungian egin zen eta 5.000 bisitari inguru izan zituen; aurten kopuru hori gainditzea espero dute antolatzaileek. Lau egun iraungo duen plataforma maiatzaren 17an ospatzen den Internet-aren Egunean amaituko da.



Udalbiltza auziak 7 urte

APIRILAREN 29-AN, DATORREN ASTEKO EGUENEAN ZAZPI URTE BETEKO DIRA UDALBILTZAREN AURKAKO OPERAZIOA EGIN ZUTENETIK. Auziaren epaiketaren hasiera-data zehatzik ez badago ere, ezker abertzaleko ordezkariak igorritako idatzian jasotzen denez, *“laster izango dela uste dugu, izan ere Auzitegiak aurreko abenduan hasi nahi zuela iragarri baitzuen. Espainiako Auzitegi Nazionalak Udalbiltzako 22 ordezkari eta langileren aurka egin nahi duen epaiketa politikoa dela eta, udal hautetsi eta hautetsi ohien salaketa adieraztera gatoz eta, aldi berean, Euskal Herrian nazio-erakundeak eraikitze eskubidea aldarrikatzera”.* Horrekin batera, elkartasuna adierazi nahi diete.

Horren harira, datorren egunean, apirilaren 29an, 19.30etan udaletxearen aurrean kontzentrazioa deitu dute: *“18/98, Gara, Egunkaria, Udalbiltza... bidegabekeria hauei erantzun eta ezker abertzaleko hainbat hautetsik jasaten dihardugun apartheid egoerari aurre egin behar diogula uste baduzu, gonbidatuta zaude”.*


Telefono mugikorrek jendiaren osagarri bihurtu dira, eta askotan pertsona bakotxaren izaeria hartzen dabe. Holan, jendiak bere gustora moldatzen ditu mobillan irudixa edo horrek botatzen dituan soiñuak. Izan be, halako gauzetarako gero eta aukera gehixago eskaintzen ditue mugikorrek.

Zein musika-tonu dakazu sakeleko telefonuan?



FERNANDO DíEZ
13 urte
ikaslia

Telefonuan doiñu normala dakat, telefonuak ekartzen zittuanetari-ko bat. Nik ez detsat beste abestirik sartu ez ezer, eta ez jata okurridu sartzia bez. Egixa esan holako gauza ez jata inporta, nik doiñu normala ipintzen detsat eta kitto, beste barik.



ITZIAR ANTZIA
43 urte
etxeoandria

Telefonuan ekartzen eban doiñuren bat dakat ipiñitta, musika ezberdiñak ipintzen nere semiak jakingo dau, baiña nik ez. Egixa esan ez jata inporta zelako musika euki, nik deixa erantzutiarekin nahikua dakat. Gero, mobillarekin arazuak badakadaz semiari esaten detsat konpontzeko eta kitto.


NEREA PAGOAGA
34 urte
langabia

Telefonuak ekartzen eban doiñu bat dakat ipiñitta deitzen dosten-erako. Badakat nik sartutako edo bialdu desten abestiren bat sartuta, baiña egixa esan mugikor-ekin ez naiz asko enteratzen eta ez jata asko inporta be zein doiñu euki.



SERGIO LÓPEZ
35 urte
bihargiña

Telefonuak berak zekan doiñua dakat ipiñitta, ez dakat bestelako abestirik ez ezer. Gero, jendiak beran mobillian zer dakan ipiñitta berdin jata, nahi dabena egin leike. Nik doiñu sinpliak ditut. Deixetarako deixen doiñua, alarmiana bada, alarmian doiñua, eta holan.



Herri Urrats 2010
herri urrats
senperen
maiatzaren 9an
irteera
09.30etan
Ego-Gainetik
AUTOBUS
zerbitzua
9€
buelta
19.30etan
J.A. Mogel Ikastolako Guraso Elkarte / ...eta kitto! Euskara Elkarte

EGOITZA NAGUSIA
Dialabarrieta 20 - behea, eskuma
FUNERARIA MUGICA
Tanatorio Crematorio del
Bajo y Alto Deba
Tanatorio eta Errausketa labea
Egiteberrak (Signa poligonoan)
Partikular, mitua eta aseguru etxeri zerbitzuak
Koroak - Eskelak - Urteurrenako eskelak
Euskal Herri osoko ospitaleetan hartzen ditugu
Nazio eta Nazioarteko trajoak
Mugica
Ehorzketa
TELEFONOA (24 ORDU)
943 201 951

Gure herriko argazkilari zaletuak geratu barik dihardue azken aldi honetan, Klub Deportiboko Argazkilaritza Batzordearen eskutik. Hillero erakusketa ugari antolatuz gain, lehiaketetan sari mordua jasotzen dihardue azken aldian, bai indibidualki baita talde modura be. Horren adibide garbixa iaz Espainia maillako sari nagusixa eskuratzia izan zan. Baiña goreneko maillan egonda be, Deporreko argazkilarixak ez detse laga aurrera egitteko goguari, ez horixe. Atzo bertan Deportibuan egindako presentaziñuan aurreratu deskue maiatzerako preparautakua eta, atzera be, edozeiñ aho zabalik lagatzeko moduko egitarau ipiñi eben mahai gaiñian.

Deporreko argazkilarixak diñuezez, “sari hori pizgarrizat hartuta, horrek oindiok be energixa gehixago emon desku Argazkilaritza Maiatzean ediziño barri bat antolatzari ekiteko orduan. Bakarkako hiru erakusketarekin hasiko gara: Indalezio Ojanguren lehiaketako azken ediziñua irabazi eban Virginia Arakistaiñ eibartarrarena; irudixa eta soiñua konbinatuta ikuslieri instalaziño originala eskinduko detsen Jordi Plana katalanarena; eta “Tribus de Orissa” bere seriearen parte direan argazki exotikuekin osatutako Malaga-ko Juan Miguel Albarena”.


Horrez gain, hiru dira baita antolatutako erakusketa kolektibuak: “Autore ezagun eta promesa gaztien biharrez betetako Espaiñiako Argazkilaritza Konfederaziñoako argazki fondoarena; urteroko moduan, ohikua dan Euskadiko lehiaketen lehiaketara, Argizaiola Sarira, aurkeztutako lanena; eta, jakiña, urtetik urtera gero eta gehiago diran Eibarko Klub De-

Argazkixak

RAFA HERRERO



atzera be maiatzeko ardatz



portiboko bazkidiak eurak lortutako irudixekin egitten doguna”.

Baiña, azken urtiotako marxari jarraituta, formakuntza eta trebaketarako tartia be eskinduko dabe: “Aukera bi eskaintzen jakuz oinguan ofiziuaren trikimailluak ikasteko: Mamen Marik Portalean emongo daben estudioko erretratuaren inguruko doaneko tallarra eta autoriak biharra zelan egitten daben bertatik bertara ikustekua, Untzagako plazan muntatuko dan argazki estudixua. Amaitzeko, ohiko Argazki Rallyaz gozatzeko aukeria izango dogu”.

Virginia Arakistainen lana

Herriko argazkilarixeri arreta berezixa eskinduta, Virginia Arakistainen izena honezkero oso ezaguna egitten jaku, bestiak beste oindiok oso gertu geratzen dalako Indalezio Ojanguren lehiaketako azken ediziñua eta eibartarrak lortutako markia: sari nagusixa Eibarrera ekarri daben lehelengo argazkilarixa izan da bera, oso bilduma berezixarekin.

1993 urte inguruan hasi zan argazkilaritza munduan, Klub Deportiboko argazkilaritza taldiarekin. Lehelengo pausuak emon eta zuri-beltzaren aldeko apustua egiñ eban, bera eta

ERAKUSKETAK**VIRGINIA ARAKISTAIN.**

Maiatzaren 7tik 30era. Portalean.

JORDI PLANA "ÀNIMES".

Maiatzaren 7tik 30era. Portalean.

CONFEDERACIÓN ESPAÑOLA DE FOTOGRAFÍA:**"Fondos Fotográficos".**

Maiatzaren 7tik 30era. Portalean.

JUAN MIGUEL ALBA MOLINA. "Tribus de Orissa".

Maiatzaren 7tik 30era. Topalekuan.

29. ARGIZAIOLA LEHIAKETA.

Maiatzaren 1etik 31ra. Klub Deportiboan

K. DEPORTIBO Argazki Taldiaren KOLEKTIBUA.

Maiatzaren 1tik 31era:

El Ambigú eta Portalea tabernetan.

Maiatzaren 7tik 30era:

Untzagako jubilatuetan.

TALLARRAK

(Musutruk, nahi dabenandako)

MAIATZAK 15**"RETRATO EN ESTUDIO".**

Irakaslia: Mamen Mari.

Tokixa: Portalea (areto nagusixa).

Orduategia: 10.00etatik 14.00etara

eta 16.30etatik 19.30etara.

Izen-emotia: argazkilaritza@gmail.com

(plaza mugatuak).

MAIATZAK 22**"UN ESTUDIO FOTOGRAFICO EN LA CALLE.**

Retratos de Galería en en corazón de la ciudad".

Tokixa: Untzagako Plaza.

Orduategia: 10.00etatik 14.00etara.

MAIATZAK 23**ARGAZKI RALLYA (zuribaltzian eta digitalian).**

Izen-emotia: Egunian bertan,

08.30etatik 09.30etara.

Amaieria: 14.30etan. Urteeria: Deportibotik.


bere biharrak ezagutzen dituenen berbetan, "bertan mailla tekniko eta artistiko inbidiagarriak eskuratuta". Teknika albo batera lagata, batez be hirixetako paisajiekin maiteminduta dago eta Arakistaiñen bildumetan Berlin, Londres edo Nueva York moduko tokiak oso ikuspegi berezittik ikusteko aukeria daka ikusliak. Halanda be, ez ditu baztertzen paisajiak eta naturako beste irudixak.

Edozelan be, teknika digitalera salto emoteko arazorik ez dau izan eta gaure egunian be bera argazkilaria moduan jaiotzen ikusi eban argazkilaritza taldiarekin jarraitzen dau alkarlanian. Argazkilaritza Taldekuen berbetan, "beraren eta bere moduko beste batzuren bultzadiari esker lortu dau talde honek 2009an Argazkilaritza Sari Nazionala (CEF)".

Irudi fijua eta mugimendua bat egiñik

Berezitasun modura, bes-talde, Ànimes irudi finkoa eta mugimendua konbinatzen dituan instalaziña egongo da martxan. Egillaren berbetan, "arimek gaur egungo egoeren aurrian lehenagoko eta oingo denporen mugiezintasuna eta ezer egiteko aukera eza hori islatzen dabe". Biolontxeloaren musikak lagunduko detsa amaigabeko denporaren pasatziari.

Eta kolektibuetan, aittatzekua da Argizaiola sarixaren ingurukua: "Hasieran argazki onenak aukeratzen zittuen, baiña gaur egun sarixa jaso daben



"Retrato en estudio" emango du Mamen Mari.

argazkilarixak gonbidatzen ditue eta argazkilarixak eurak aukeratzen ditue erakutsiko dituen lanak. Aurtengo gonbidatuak honetxe dira: Virginia Arakistain, Xabier Arribas, Julian Auzmendi, Asier Azarola, Patxi Badiola, Benito Cantero, Isabel Díez, Joseba Egibar, Javier Fernández Ferreras, Josu Garai, Julián Gil, Roberto González, J. Agustín Gurrutxaga, Joseba Ibarra, Andrés Indurain, J. Ramón Llavori, Juan José López Azurmendi, Ricardo Mediavilla, Emilio Muñoz, Javi Muñoz, Juan Antonio Palacios, Carlos Romero, Joaquín Vara eta Marisol Yaben".

Edozelan be erakusketak eta ekitaldi guztien gaiñeko informaziña (ordua, tokixa etab.) aldameneko kuadrutan irakortzeko moduan dakazue eta, antolatzailliak azpimarratutakuen arabera, "danak merezi dabe gure arreta". Izan be, ez deskue errez ipiñi aukeratzen hasteko kontua...

**Gozokiak****Ogia****Prentsa****Aldizkariak****Edariak****ZURE Hestebeteak****ESKURA**

Denda bitan
hartuko zaitugu:
Sostoatarren, 6an
eta
Bidebarrieta, 30ean
ZABALDU BERRIAN



TEEN-
AJEA



UNI Eibar-Ermuako Administrazio eta Finantzetako Goi-Mailako ikasleek osaturiko enpresa birtuala da FundiarTE S.L.S. Benetako enpresa bat bezala funtzionatzen dute, baina euren asmoa ikastea da eta ez dute produkturik merkaturatzen. European Quality Certification-a jaso dute Bartzelonan, estatuko lehenak izanik.

FUNDIARTE S.L.S., UNIKO enpresa birtuala:

“Hobe aurretik joan atzetik baino”

- Zer da zuen enpresak egiten duena?

Administrazioaren inguruan sorturiko enpresa birtuala da. Administrazio eta Finantzetako Goi-Mailako tailerra da eta, horrela, enpresa birtuala eratu dugu, izen eta funtzio batzuekin, eta errealitatea simulatzen duen lanak egiten dira bertan.

- Zein sektoretan mugitzen da lan hori?

Nazio mailako merkataritza ari da. Alfa Arte dugu enpresa ‘amabitxi’ bezala, pieza txikien euren katalogoa laga digute eta guk produktu horiek merkaturatzen ditugu birtualki. Gurea moduko enpresak daude beste zentro batzuetan nazioarte eta nazio mailan, eta gure artean produktuak saldu eta erosten ditugu, hau da, enpresa erreal baten egintza guztiak egiten ditugu produktuen irteera ezik.

- Zenbat ikaslek osatzen dute FundiarTE?

Talde bitan banatutako 18 ikaslek osatzen dute. Bakoi-

tzak funtzio bat egiten du eta postuak txandakatzen dira sail gutzietan aritu arte.

- Ondo egindako lanaren saria jaso zenuten Bartzelonan.

Urtero Nazioarteko Azokak egiten dira eta, iaz Austrian izan baginen, aurtun Bartzelonara joan gara. Bertan, azoka erreal izango balitz bezala zurea eskaintzen duzu. Benetako enpresen ISO moduko ziurtagiriak dituzten moduan, enpresa simulatuek European ziurtagiria daukagu, eta guk hori jaso ahal izateko dokumentazioa prestatu genuen. Horrekin sistema antolatuekin lan egiten duzula ziurtatzen duzu, funtzioak definituta dituzula... Orduan, azokan geundela ziurtagiri hori eman ziguten. Bitxiena da gu izan garela estatu espainiarrean European ziurtagiria lortzen lehenak. Eibartarrak izanik hobe aurretik joan atzetik baino (barreak). Iaz Austrian beste sari bat eman ziguten eta orain hau. Hobe betzeko grina izango da.

publi resa

- Pin-ak
- Metxeroak
- Kamisetak
- Boligrafoak...

PUBLIZITATE ARLOKO eta
ENPRESETAKO OPARIAK

Armagin 3 - behea

☎ eta faxa: 943 70 14 97 Publi.resa@euskalnet.net

MUGICA
ITURGINTZA

AIRE EGOKITUA, ITURGINTZA,
GASAREN INSTALAZIOA, KALEFAKZIOA,
PETROLIO-PRODUKTUAK, BAINUEN
ERREFORMAK ETA ABAR...

HANS GROHE KANILEN BANATZAILEA
ZORU ERRADIATZAILEA
EGUZKI-ENERGIA

San Juan, 15
Tel. 943 20 10 30 - Faxa. 943 20 72 24

Argazki solidarioen agenda

Giza eskubideak aurrean izango dituzte momentu oro Eibarko ikasleek 2010-11 kurtsoan zehar. Izan ere, barneratuta eduki behar diren kontzeptuak dira giza eskubideak eta horietaz jabetu behar da edonor. Datorren kurtsoan iza eskubideei buruzko argazkiek ilustratuko dute Eskola Agenda.

Tolerantzia eta berdintasuna, kontzientzia solidarioa eta aniztasunarekiko errespetua sustatzeko asmoarekin, eta aniztasun hori gazteen sormen gaitasun nahian, Eibarko Udalaren Euskara-Kultura Batzordeak 2010-11 Eskola Agenda ilustratzeko argazki lehiaketa jarri du martxan.

Giza eskubide ezberdinak batuko dituen Eskola Agenda izango da. Eskola Agenda solidarioa, tolerantea, eskuzabala. Gazteek kontzeptu hauen



gaineko ezagutza eta ulermena garatuko dute, baina ez soilik agenda eskuan duten bitartean, baizik eta hau eratzeko orduan ere, eurak izango baitirelako argazkiak egin eta agenda ilustratuko dutenak. Horretarako lehiaketa hau.

Gutxienez 10 argazki

Eibarko ikastetxeetan matrikulatuta dauden DBH eta Batxilergoko ikasleek edo 12 eta 18 urte bitarteko Eibarko gazteek hartu ahal izango dute parte lehiaketan. Giza Eskubideak gai nagusi moduan hartuta, parte-hartzaileek 10 giza eskubide desberdini erreferentzia egiten dizkien 10 argazki aurkeztu beharko dituzte gutxienez. Argazki hauek, bestetik, maiatzaren 14ko 14.00ak baino lehen aurkeztu beharko dira Pegoran.

Argazkiak formatu digitalean aurkeztu behar izango dira



lazio agendaren aurkezpeneko irudia. / EKHI BELAR.



(300 ppp-ko erresoluzioarekin) CD batean. CD-a lemapean aurkeztu beharko da; eta erantsita, kartazal itxi batean, lema eta adina jarri behar da kanpoaldean, eta barruan, aurkeztutako argazki bakoitzak Giza

Eskubideen zein artikuluri egiten dion erreferentzia jasotzen duen zerrenda eta egilearen izena eta abizenak, helbidea eta telefonoa.

Epaimahaiaren erabakia maiatzaren 21ean emango da jakitera, eta orduan jakingo da zein den 150 euro eskuratuko dituen irabazlea (bilduma onenari saria) eta 30 euroko 5 sari eramango dituzten parte-hartzaileak (argazki solteentzat saria). Diruaz gain, hala ere, Eskola Agendan euren argazkiak ikusteko saria ere jasoko dute, ez soilik irabazleena, parte-hartzaile guztienak baizik.

BIRZIKLATZEKO BEREIZTU

EDUKIONTZI

HORIA


Plastikozko ontziak,
latak eta brick
motako ontziak



Kartoizko eta
paperezko ontziak,
egunkariak eta
aldizkariak bakarrik

EDUKIONTZI

URDINA



KIRMEN URIBE,

idazlea

- Nola pizten zaizu bonbila liburu bat idazterako orduan?

Asmo batekin, hori da hasiera beti. Bilbao-New York-Bilbao liburuaren kasuan nire asmoa itsasoaren mundua jasotzea zen, alegia, nik ezagutu dudan mundua txikitatik eta nola ari den mundu hori desagertzen. Hori zen nire asmoa. Gero gertatzen da asmo hori era egoki batean eraman behar dela paperera. Forma izan behar du eta forma horrek berritzailea behar du izan. Orduan, hor hasten dira gero kezkek. Baina tira, asmoa nire mundua jasotzea zen.

- Nola egiten duzu lan liburuak idazterakoan? Disziplinatua zara? Inspirazioaren arabera egiten duzu lan?

Ez, ez, inspirazioari bidea ematen jakin behar zaio. Lana da gehiena: irakurri, idatzi, gauzak pentsatu (pentsatzea oso garrantzitsua da, liburu idatzi aurretik asko pentsatu behar da, zein pausu eman, eta baita bitartean ere)... Lana da gehiena, eta lanaren bitartez lortzen dena da zuk buruan daukazun ideia hori ahalik eta modu egokienean papereratzea.

- Bilbao-New York-Bilbao da egin duzun lehen eleberria eta arrakasta osoa izan du. Zein uste duzu izan dela arrakastaren gakoa?

Irakurlea izan da gakoa, irakurlearekin bat egin duela hasiera-hasieratik eta irakurleek batak besteari esan diote liburu honek merezi duela. Literatur Sari Nazionala jaso aurretik milaka ale zeuden salduta, orduan sariak lagundu dio bigarren bultzakada ematen, baina gakoa irakurlegoa da.

- Askotan egin duzun bidaia da Bilbao-New York-Bilbao hori?

(Barreak) Bai, askotan egiten dut. Lotsa pixkat ematen dit esa-

2009ko Espainiako Literatur Saria jaso zuen Kirmen Uribe idazle ondarrutarrek Bilbao-New York-Bilbao eleberriarengatik eta apirilaren 27an, martitzena, liburu nola idatzi zuen azalduko du hitzaldian 19.00etatik aurrera Portalean. Udal Euskaltegiaren 25. urteurrenaren ekintzen barruan kokatzen da idazlearen bisita.



teak, askok agian ezin dutelako egin bidaia hori, baina han lagunak ditut, hango idazleekin egoteko aukera daukat eta behintzat urtero joaten saiatzen naiz.

- Eibarko hitzaldian Bilbao-New York-Bilbao liburu nola idatzi zenuen azalduko duzu. Nola idatzi zenuen, bada?

(Barreak) Ba tira, liburu hau egin da pausuz pausu, urratsez urrats. Urte askotako lana da. Saiatu naiz, behintzat, irakurlearengandik hurbil egoten, zintzoa izaten nire buruarekin eta benetako gauza bat egiten.

- Ezberdina da eleberri baten aurrean egin beharreko lana edo olerki-liburu edo umeentzako ipuinen aurrean egin beharrekoa?

Oso desberdina da. Oso desberdina da olerki bat edo nobela bat. Lan egiteko modua guztiz ezberdina da. Nobela batean denbora asko sartu behar da, ordu asko sartu behar dituzu eta ideia horrekin agian urteak ibili, orduan beste lan mota bat da. Olerkiak gehiago dira 'txispak' eta haurrentzako idaztea plazerra da niretzat, ondo pasatzen dut.

- Gaur egungo literatura idazle berritzaileak jotzen zaituzte. Zer deritsozu?


Horiek adjektiboak dira. Ni bide berriak bilatzen saiatzen naiz, baina hori Lauaxetak ere egin zuen bere sasoiaren. Literatura bizirik dago idazleek erabili ez den kontatzeko era bat bilatzen dutelako. Orduan, nik uste dut guztion lana dela hori.

- Literatur Sari Nazionala jaso zenuen 2009an. Zer ekarri zizun horrelako sari bat irabazteak?

Poz handia niretzat eta ingurukoentzat, jende asko poztu zen. Lasaitasun handia ematen dit, lana ziurtatuta edukiko dudala ziurtatzen dit, nire lanak itzuliak izango direla... Aurretik baziren itzuliak nire lanak, baina orain errazagoa da. Interesa piztu du baita ere euskal literaturaren gainean, eta hori ona da.

- Zer suposatzen du sari honen euskal literaturarentzat?

Nik uste dut beste urrats bat dela beste askoren artean. Euskal literaturaren oso zalea naiz, asko irakurri dut, eta saiatu naiz nire hondar alea hor jartzen. Horrekin jarraitzeko asmoa dut.



Nesken saskibaloitza taldea osatzeko asmo sendoa

ZAZPIKOTEA OSATU DUTE DAGOENEKO SASKIBALOIAN JARDUTEA NAHI DUTEN ITZIOKO IKASLE BAZUK; baina, aurrera jotzeko, "hamabi jokalaririk behintzat" izango duen taldea osatu behar dute. Horregatik gonbidatu dituzte kirol hau gustokoa duten 12tik 16 urtera arteko neskek eurekin kontaktatzeko, "edozein ikastetxetako izanda ere". Interesatuok aukera bikoitza duzue: entrenamenduetara joan eta izena eman edo, bestela, 697-211272 (Uxue) telefono zenbakira deitu. "Martitzenero entrenatzen dugu Itzian, 16.30etatik 18.00ak arte; eta baita Kiroldegian, zapatuetan, 11.30etatik aurrera" diote taldeko partaideek.



Orain arte Katu-Kale saskibaloitza taldeko 11akiren aginduetara badihardute ere, "Novamark-eko Gaizkak ere lagunduko digu la esan digute", diote saskiratze sekretuen jabe egin nahi diren gazteek. Beste 6-7 jokalarirekin, taldea osatu eta lehiaketara jauzia egiteko asmoa dute: "Asmoa da ekai-nean partiduetan jokatzeko hasia eta, horrela, hurrengo denboraldiari begira taldea prestatzen joatea".

Kalamuako judokak Andorran izan dira jardunaldi biko lehian

ZAPATUAN ETA DOMEKAN, JARDUNALDI BIETAN, IZAN DA EIBARKO ORDEZKARITZA ANDORRA LA VELLAKO NAZIOARTEKO XX. TORNEOAN. Lehenengo egunean 100 judoka inguruk jardun bazuten, hurrengo egunean 170 kirolari izan ziren lehian bizian jardun zutenak. Hamasei klubetako judoek jardun dute, senior, junior, kadete, infantil eta alebin mailako txapelketak jokoan izan dituztela, eta eibartarrek hainbat domina ekarri dituzte: seniorretan, brontzezko bana Pedro Barbosa eta Juan Jose Abad-entzat; kadeteetan, urrezkoa Julen Ramonentzat eta brontzezkoa Eneko Loresentzat; infantiletan, Nekane Muguruzak urrezkoa eta zilarrezkoa eskuratu ditu, Eneko Loresek zilarrezkoa eta Oier Alzagak, Julen Ramonek eta Jon Alzagak brontzezko bana; azken honek - Alzagak - urrezkoa irabazi zuen alebin mailan.



Hierros Anetxeko errugbilariek mailari eustera domeka eguerdian

DENBORALDIKO NEURKETA GARRANTZITSUENETAKO BATEN AURREAN DAGO EIBAR RUGBI TALDEA ETA ZALETUEN BABESA BEHARKO DU Malagatik ekarritako emaitzak benetako balioa izan dezan. Kanporaketa zaila dago oraindik, baina kanpoan 15-20 irabaztea ere Malagara joan aurretik sinatzeko modukoa zen eta ikusi da Txema Isasak zuzentzen duen taldea lehiakorra dela oso. Aurkariei ez

zieten laga entsegu marra gainditzea eta, horrez gain, Diego Suárezek eta Peru Unamunok entsegu bana gauzatu zuten, Emmanuel Galvánek hankako puntuekin adornatu zituenak. Domekako itzulerako partidua 12.00etan hasiko da eta, kanporaketan aurrera eginez gero, gero Las Rozaseko Industriales edo estatuan txapelketa gehien dituen Madrilgo Arquitectura ospetsua izango dute aurrez-aurre mailari eusteko.

González eta Xalaren artekoa izango da jokoan Astelenan

BINAKAKO FINALA JOKATU ZUTEN IPARRALDEKO ORDEZKARIEN ARTEKO LEHIA izango da Astelenan domeka arratsaldean. 17.00etan hasiko den jaialdian, González eta Xal, nork baino nork, jardungo dute jaialdiko partidu nagusian (badirudi, gainera, normalean

baino ke gutxiago izango dela frontoian, azken datuak diotenez Iparraldeko zaletuek gutxiago erretzen baitute). Jaialdia hasteko, Berasaluze IX.a-Eulate eta Olazabal-Laskurain bikoitek izango dira borrokan; eta, amaitzeko, Apezetxea-Galartza VI.a vs Ongay-Urberuaga.

KATU  **KALE**
BIDEBARRIETA, 1 **TABERNA**

Ugaldea poligonoa, 11. Pabilioia 20170 USURBIL

Bulego altzariak eta materiala
PAPERDENDA


Tel. 943 365892
Faxa. 943 371686
Mobila. 687 828590
fatima@manpel.com
www.manpel.com

MANPEL

Urbat waterpolo taldeak handitzeko asmoa aurkeztuko du maiatzean

INDARBERRITUTA ETA EGITASMOAK BURUTZEKO ASMOZ EHINGO DIO HURRENGO DENBORALDIARI URBAT-URKOTRONIK waterpolo taldeak. Aurten dagoeneko martxan ipini dira hainbat proiektu, Davide Cerchi italiarraren zuzendaritzapean. Maiatzaren 3tik 9ra doan astean irailetik aurrera ekingo dioten egitarauaren aurkezpena egingo dute herriko ikastetxeetan eta barixaku horretan, hilaren 7an, Portalean aurkeztuko aipatutako programazioa komunikabide eta gurasoei. Hurrengo egunean, zapatuan, atek zabalik jardunaldia eskainiko dute Orbeako igerilekuan, 14.00etatik 17.00etara.

Asteburuan jokotutako partiduei dagokienez, seniorrek 8ra



berdindu zuten Orbean Easo-ekin, azken laurdeneko 4-1ekoari esker. Jubenilek partidu askoz zailagoa izan zuten eta 5-18 galdu zuten, hauek ere Orbean, Santoñarekin.



Jubenilen taldeak aurkari zailak izango ditu Barcelonan eta CAI Aragonen.

Kadeteetan ere Euskal Ligak ihes egin dio Arrateri

JUBENILEN KASUAN MODUAN, DENBORALDI OSOAN TALDE ONENA IZAN ETA GERO, AZKEN FASEAN EUSKAL LIGARIK GABE GERATU da Eibarko eskubaloitza; bietan, gainera, azken fasea lpuan bertan jokatzeko zela. Zarautz izan da jubeniletako irabazlea, azkenean erabakigarria izango zen barixakuko partiduan Arrateri 33-32 irabazi eta gero. Eibartarrek beste partidu biak irabazi zituzten (31-25 Urdane-

tari eta 32-18 Bidasoari) eta azpitxapeldun geratu dira. Aipatutako biak eta Bidasoa izango dira Espainiako txapelketako sektore fasea jokatu dutenak.

Sektorea Zaragozan

Gaur hasi eta etzira arte iraungo du Zaragozan jokatu den jubencil mailako Espainiako txapelketarako C sektoreak. CAI Aragon, Haroko El Diluvio, Barcelona eta Arrate izango dira parte hartuko dutenak.

Otxoa Memoriala ere Ampokoentzat

GAZTEEN MAILAKO TXIRINDULARITZAN, TALDE OSO INDARTSUA OSATZEN DUTE AMPOKO GORRIEK eta, atzera ere, euren dako izan zen Otxoa Memorialaren 50. urteurrenarekin batera jokoan zegoen Gipuzkoako kadeteen txapelketa. Domeka goizean jokatu zen Eibarko Txirindulari Elkarteak antolatutako proban, Peio Olabarria izan zen nagusi, Galdiano taldeko Xabier Gorrotategiren aurretik, eta denbora berean helmugaratu zen Iñaki Alda-nondok irabazlearen taldekideak osatu zuen podiuma. Taldeka Ampo izan zen nagusi, lehiakortasunaren saria talde bereko Jokin Sarasolarentzat izan zen eta Debarrenen onena Fabian Castro izan zen, Iturriaga taldekoa.



Abascal Memorialaren ere Ampo nagusi izan zen guztiz. / MAIALEN BELAUSTEGI.


Eyjafjalla-ren eraginez, Eibar KEko neskak ezin izan zuten Huelvan jokatu

AURTENGOA URTE BEREZIA -ZENTZU GUZTIETAN, GAINERA- IZAN DA EIBAR KE FOBALL TALDEAREN NESKENTZAT. Maila Nazioanera jauzia egitea nahiko erronka izango ez balitz, eguraldiaren antojuen kontra ere lehiatu behar izan dute (esaterako, gogoratzeko da elurra-ekin Jaenen aurka Unben jokatu behar izan zutena) eta oraingoan zorioneko Islandiako sumendiak ere ez zien abioia hartzen laga eta Huelvan Cajasol Sporting-en aurka jokatu beharreko norgehiagoka bertan behera laga zuten;

bestela ere, arazoak nahiko eta, errematatzeke, orain partidu bat jokatzeko zain.



Castañón eibartarrarentzat San Prudencio golf txapelketa



JAVIER SAN ANDRES LAGUN ZUELA IRABAZI DU GOLFLARI EIBARTARRAK San Prudentzio golf txapelketaren azken edizioa, 47 punturekin. Eta, emaitza horrekin, txapelketako finala jokatu dute domekan Larrabea, Izki eta Zuiako klubetako irabazleentzako.

Herriko atleten emaitza onak Gipuzkoako txapelketan

TOLOSAN JOKATUTAKO TXAPELKETA HORRETAKO 1. JARDUNALDIAN, KLUB DEPORTIBOKO GAZTEEK MAILA ONEAN JARDUN ZUTEN. Infantiletan, Ainhoa Azpiazuk txapela jantzi zuen jabalina jaurtiketan, Tomas Vouilloz 2.a izan zen modalitate berean eta 3.1 luzera jautsian; eta, podiumetik kanpo, Odei Jainagak 4. postua lortu zuen eta Ander Gisasolak 6.a, hauek ere jabalinarekin; Iza-ro Fernández 6.a izan zen jauzi hirukoitzean eta Cristina Rodríguez 9.a altueran; eta 9. postu bi eskuratu zituen ere Txomin Osorok, 1.000 oztopoetan eta luzera jautsian. Alebinetan, bestalde, Julen Teránek brontzezko domina lortu zuen 2.000 metroko lasterketan eta Andoni Egurrola laugarren amaitu zuen 60 metro hesietan.

Scania Euskal Herriko onena Unben

Zapatuan Unben jokaturako Euskal herriko klubren arteko 1. mailako txapelketan, Scania talde nafarra izan zen onena, Real Sociedad taldearen aurretik. Gipuzkoako hiriburuko taldearekin lehiatu zen Edorta Aranburuzabala eibartarrak altuera jauziko proba irabazi zuen, marka onena eginez, metro birekin. EHU-UPV 3. postuan sailkatu zen.



Eibar - Osasuna Promesas domekan

DENBORALDI AMAIERARA INDARREZ JUSTU SAMAR HELDU DA EIBAR FOBALL TALDEA; baina, hiru jardunaldi geratzen direnez, poltsikoan du ia 2. A mailarako igoera promozioa jokatzea. Horretarako, neurrak interesgarria da domekan, 18.00etan, Osasunako harrobiko jokalarien aurka jokatu beharrekoa, garaipenak sailkapena ziurtatu baitezake. Gero geroak!



Mauritaniaren aldeko maratoi erdia Unai Narbaizarentzat

ELGOIBARREN BIZI DEN UNAI NARBAIZA EIBARKO ANTXIKIKETALARIAK IRABAZI DU SAN ADRIANEN (Nafarroa) 120 bat atleta bildu zituen 21,9 kilometroko ibilbidea. Haizeak eta lur irregulartasunak baldintzatu zuten Mauritaniari laguntzeko maratoi erdian, ordubete eta 16 minutu behar izan zituen eibartarrak amaitzeko eta Gasteizko maratoia prestatzeko balio izan dio.

Partidu handia areto-foballean

CONCEPTO CREATECH-EK ALLERRU LIDERRA HARTUKO DU BIHAR ELGOIBARKO OLAIZAGA KIROLDEGIAN. Partidua 16.00etan hasiko da, Elgoibarko agintariekin batera, Gipuzkoako Federazioko ordezkariak, Eibar KEko zuzendaritzako kideak eta probintzia eta eskualdeko entrenatzaileak izango dira. Liga amaitzeko bost jardunaldien faltan, Allerruk puntu bi kentzen dizkio Laskorain Ikastolari eta lau Conceptori; hala ere, azken honek partidu bat gutxiago jokatu du eta, garaipena eskuratuz gero, lidergora egin dezake jauzi.



Asteartero Eibarko alkatiak **HAMAIKA BERBA** Irratsaloan orantzungo ditu, eguardiko 12.30etan. Zure kasa, proposamena, zalantza bidali helbide honetara: eibar@herri-irratia.com SMS bidez: Eibar (nahi duzun mezua) 5868 zenbakira, edo zuzenean telefonoz 943 82 08 44 zenbakira.

90.7 Fm

Probintzia guztiko 400 bat bertsoaritzza ikasle batuko dira Elbarren domekan. Gipuzkoako Bertso Eskolen Eguna egingo da herrian eta bertsolari gazteek hartuko dute herria. Ekintza mordoia egingo dira egun osoan zehar eta arratsaldean (16.30etan) Bertsound System ikuskizuna egongo da ikusgai Coliseoan.

ARITZ SOUND SYSTEM (Bertsound System): "Bertsolaritza mugatzea triste da"

- Zer da Bertsound System?

Maitasun-gorrotu harreman bat. Kultura biren arteko erlazioa jorratzen du. Batetik, musika beltzaren barruan dauden rap, hip-hop eta reggaea. Eta bestetik, bertsoaritzza. Esperimentatzen dihardugu harreman horretan. Egia esan, hartuemanak dituzten kultura bi dira. Ea zer irtetzen den harreman horretatik.

- Aurretik egin izan duzue, bada, horrelako probarik.

Bai eta gauza ezberdinak irten dira hartatik. Batzutan pasioa eta besteetan ez, egoerak baldintzatzen du emaitza, baina normalean ona izan da. Zaila da gauza biak nahastea, nahiz eta hainbat gauza amankomunean izan, hori guztia praktikara eramatea gaitza delako. Base erritmiko baten gainean bertsoan ibiltzea zaila da, baita inprobisatzea ere. Bertsolaria, adibidez, horrelako gauzetara ohituta egon behar da, belarria eginda eduki behar du eta irekitasuna ere.

- Nola sortu zenuten taldea?

Istorio luzea da. Aurretik saiakerak egon ziren, Negu Gorriak egin zuen zerbait honen gainean, adibidez. Selekta Kolektibotik nator ni eta bertsoaritzza ere gustuko dut, beraz, zergatik ez rapa eta hip-hop bertsoaritzzarekin nahastu? Gustoko elementuak dira hauek eta ez gara ezertara mugatzen. Alde biek gauza amankomunak dituzte elementuak eta aukera ezberdinak eskaintzen dituzte. Bilbo inguruan eskaini genuen lehen saioa, hainbat bertsolari eta raperok hartu izan dute parte ekimenean orduetik hona.

- Zein da zure papera Bertsound Systemen barruan?

Saioetan erritmoak ipintzen



ditut eta koordinazioaz arduratzen naiz. Esan, bestetik, istorio irekia dela hau eta parte-hartzaile ezberdinak aritzen direla saioetan. Horrela, tokian tokiko baten batek parte-hartzen saiatzen gara.

- Eibarko kiderik jardungo du Eibarren?

Tamalez ez dut ezagutzen Eibarren estilo honekin aritzera animatuko litzatekeen bertsolariak, ezta euskeraz aritzen den raperorik. Euskal Herrian raperok asko irten da azken urteetan, baina %90ak gaztekeraz egiten du. Bertsolarien artean, bestetik, gutxi ausartzen dira horrelakoetan parte-hartzera. Saioen puntuaketa egingo bagenu, hala ere, bertsolariak irabaziko luketela esango nuke.

- Nolako izango da Eibarko saioa?

Jamaikako estiloan egingo dugu, soundsystem eran. Inprobisazioa izango da nagusi, elkartu egingo gara eta ez dugu gidoi zehatzik jarraituko. Auskalo zer irtetzen den, hori abeslariaren motibazioaren eta ikuslekoaren jarreraren arabera izango da. Bestetik, bertso-eskoletako gazte asko egongo dira eta honek balio dezake ikusteko bertsoaritzan bide asko hartu daitezkeela. Mugatzea triste da.



"Mugaldekoak" filma Coliseoan

GERRA OSTEAN GIROTUTAKO FIKZIO LANA, "MUGALDEKOAK", PRESTATU DU TENTAZIOA EKOIZETXEAK ETBRENTZAT. 40ko hamarkadako hasierako euskal gizartearen isla izan nahi duen lana modu bitan, *tvmovie* formatoko pelikulan eta 13 ataletako telesaillean, eskainiko dute eta Coliseoan ikusi ahal izango dugu pelikula hori da.

Maiatzaren 3an, 20.30etan emango dute euskerazko filma, Udal Euskaltegiaren 25. urteurrenaren testuinguruan eta, horregatik, sarrera doan izatea erabaki dute Udaleko Kultura sailekoek. Sarrera lortzeko, baina, maiatzaren 3a baino lehen Coliseoko ikuskitzuen batera joan beharko du-

te interesatuek eta han emango diete pelikula ikusi ahal izateko txartela, musutruk.

Pelikula eta telesailaren ardatz nagusia "Comette Sarea" da: Bigarren Mundu Gerran Europako lerroetan jausten ziren hegazkin gidari ingelesak, euskaldun mugalarien laguntzaz, beren jatorrizko herrietara bidaltzeko eratu zen nazioarteko sarea. Horrekin batera, eta beti ere gerra osteko giro horretan, Pirinioetako herririk bateko familia baten eta bertako herritarren istorioak ezagutuko ditugu. *Tvmovie*-aren zuzendariak Fernando Bernues eta Mireia Gabilondo izan dira eta, telesaillekoak berriz, Eneko Olasagasti, Mireia Gabilondo eta Carlos Zabala.



Javier Agirresarobe, Euskaldun Unibertsala 2009

JAVIER AGIRRESAROBEN ZINE MUNDUKO ARGAZKI ZUZENDARIA 2009-KO EUSKALDUN UNIBERTSALA IZENDATU ZUTEN aurreko astean, Mikel Urmeneta Kukuxumuxu enpresako sortzailearekin batera, biek ere Euskal Herriaren irudia mundu osoan zabaltzeagatik. Agirresarobek 70. hamarkadan hasi zuen bere ibilbide profesionala eta klasikoa bihurtu da zinema munduan Pilar Miró, Imanol Uribe, Montxo Armendariz, Fernando Colomo, Woody Allen, Victor Erice edo Alejandro Amenabar-ekin lan egitearren. Aurretik sei Goya Sari, 2004ko Zinematografia Sari Nazionala eta Berlinaleko zilarrezko Hartza jasoak ditu.

“Aitarekin Bidaian” gaur Coliseoan

HIKA TEATROA TALDEAK “AITAREKIN BIDAIA” ANTZEZLANA TAULARATUKO DU GAUR ILUNTZEAN COLISEOAN, 20.30etatik aurrera (8 euro). Zahartzarolari buruzko kronikak osatzen du Hika Teatro taldearen azken lanaren ardatza. Agurtzane Intxaurrearen gidaritzapean, Jose Ramon Soroiz eta Joseba Apaolaza dira antzelaneko protagonistak, Jabier Muguruzarekin batera. Amak hil aurretik eskatutakoari jarraituta, aita-semeak elkarrekin bizi izatera kondenatuta geratu dira. Semea zinez ahaleginduko da emandako hitza betetzen, baina aita zahartzaroko gaixotasun horietako bat jota dago eta sarritan bere mundura ihes egingo dio... Hori da antzezanak kontatuko digun istorioa, une barregarri eta hunkigarritz betetako lan honen ardatza.



Apaolaza, Muguruza eta Soroiz batuko dira taula gainean.

Dantza ikuskizuna

Datorren astean, berriz, dantza ikuskizuna eskainiko du Dantzaz Konpainiak: “1.01”. Coliseoko taula gainean Aurélien Alberge, Sophie Antoine, Damien Bpugas, Charline Debons, Anneleen De-


droog, Raphaël Canet, Nuria Giménez, Mireia González, Giovanni Insaudo, Marine Sánchez eta Luca Scarpa dantzariak jardungo dute, Filgie Claverie-ren zuzendaritzapean. Apirilaren 30ean izango da emanaldia, 20.30etan. Sarrerak 8 eurotan daude salgai.

Aldaketak bertso desafioan

ILLUNABARRIAN EGITASMOAREN BARRUAN ...ETA KITTO! EUSKARA ELKARTEAK ANTOLATUTAKO BERTSO AFARIRAKO KAR-

TELEAN ALDAKETAK EGON DIRA: Lander Ibarluzea eta Eneko Arrateren ordeztu iratxe Ibarra eta Xabat Galletebeitia etorriko dira. Joseba Artzerekin

batera, horiek izango dira Eibarko taldearekin indarrak neurtuko dituztenak (gure herriko ordezkariak Jon Mikel Mujika, Julen Sololuze eta Mikel Arrillaga izango dira, beste aldatetarik ez bada). Maiatzaren 7an (barixakua) izango da afaria, 21.30etan Bide-Alde elkar-te gastronomikoan (Txaltxa Zelai 8-10 behe). Afarirako txartelak honezkero salgai daude, ...eta kitto! Euskara Elkartearen (Urkizu, 11 solairuartea). Euskara elkarte bakoitzak 15 euro ordaindu beharko dituzte eta bakoitzak ez diren, berriz, 18 euro.



Iratxe Ibarra eta Xabat Galletebeitia dira Bide-Aldean egingo den bertso-afariko azken berriak.

laburrak

ONDDOEN LIBURUA KALEAN

Juan Carlos Esturok “Hongos, manual para recolectar las principales setas y hongos comestibles de forma segura” liburuaren edizio berria kaleratu du. Txertoa argitaletxeak iaz eman zuen argitara eibartarraren lana eta, izan duen harrera onarekin animatuta, aurrekoa baino osotuagoa den edizioa kaleratzea erabaki du.

1948-AN JAIOTAKOAK

Urte horretan jaiotakoak maiatzaren 22an batuko dira, 21.30etatik aurrera Arrate hotelean afaltzeko. Joan nahi dutenek Euskadiko Kutxak Untzagan duen bulegoan 60 euro sartu beharko ditu, 078.1.031812.1 kontu korrante zenbakian. Azken eguna maiatzaren 17a izango da.

LOPEZ SIMON TOPALEKUAN

Gaur arratsaldean, 19.00etan inauguratuko dute Arrate Kultur Elkarte bakoitzeko Topalekuan erakusketa berria. Maiatzaren 2ra arte David López Simónen egurrezko artelanak egongo dira ikusgai, ohiko ordutegian: astegunetan, 19.00etatik 21.00etara eta asteburu eta jai-egunetan, 12.00etatik 14.00etara eta 19.00etatik 21.00etara.

Iradi
LORADENDA

- Lora eta landare natural eta lehorrak
- Ezkontzarako lorak

San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29

Radio Eibar
CADENA SER
104,0 FM

Amaia Arriaga Lizaur
KIROMASAJEA
OIN ERREFLEXOLOGIA
MASAJEA (HARRI BOLKANIKOAK)
Ordua hartzeko: 652 76 13 36
ERMUA-EIBAR-DURANGO

Ikastolako jaialdi arrakastatsua

AURREKO ZAPATUAN JUAN ANTONIO MOGEL IKASTOLAREN 50. URTEURREN FESTA HARTU ZUEN ASTELENA FRONTIOIAK, giro paregabean. Jende mordo bat zen jaialdian parte hartu zuten ikuskizunek erakarrita. Horrez gain, **beheko argazkian ikusten dituzuenak 1970ean jaiotako ena gela bateko ikasleak** dira. 26 urtez elkartu barik egon eta gero, urteurrenaren aitzakiarekin elkarrekin eman

zuten eguna. Argazkia bidali digun Ibon Serranok dioenez, *"lan itzela izan da kontaktuak lortzea. Miren Irazola eta Iñaki Lejardi zoriondu beharko genituzke antolaketa bikainagatik. Irakasle asko izan ditugu eta denei nahiko genizkieke goraintziak bidali, baina gurekin denbora gehien izan dena Maria Elena Mujika da"*. Eta, behin martxa hartuta, datorren urtean berriz ere elkartzeko asmoa dutela aurreratu digute.



"Oh Happy Day!" saioko finala zapatuan

ETB1 TELEBISTA-KATEKO "OH HAPPY DAY!" LEHIAKETA ZAPATUAN, HILAREN 24AN AMAITUKO DA ETA FINALEAN EIBARKO KORO GAZTEA EGONGO DA, finalera ailegatu diren Mallabia eta Astigarragako abesbatzekin batera. Martitzenean Miguel de los Toyos alkateak harrera egin zion abesbatzari eta udaletxeko pleno aretoak jendez gainezka egin zuen, adin guztietako jarraitzaile ugari batu baitzen, abeslari gazteei euren babesa erakusteko asmoarekin. Alkateak, Udalaren izenean, grabadore-bola oparitu zion Elena Martin abesbatzako zuzendariari.

Bestalde, biharko saioa ikusi ahal izateko, zapatu gauean pantaila haundia ipiniko dute Untzaga plazan. Animatezaile lanetan Roberto Bergara eibar-




tar ezagunak jardungo du. Claudio Landak aurkeztu duen lehiaketako bigarren edizio honetan 9 herritako taldeak lehiatu dira eta horietako 3 ailegatu dira finalera, tartean eibartarrak. Eibarko Koro Gazteak abesti bi kantatuko ditu: Su Ta Garren "Itxaropena" eta Ray Charlesen "Hit the Road Jack". Biharko finalean botoa emateko aukera izango du jendeak, SMS bitartez: mezuak 25303 zenbakira bidali behar dira, OHD Eibar idatzita.

Debako Musika Bandaren kontzertua Coliseoan

ZAPATUAN, 18.00-ETAN DEBAKO MUSIKA BANDAK KONTZERTUA EMANGO DU COLISEOAN. Fernando Urainek zuzenduko duen emanaldian honako piezak eskainiko dituzte: "Oro en la tarde" (pasodoblea, Ricardo Sabadía), "Fantaisie sur un Theme Original" (Jules Demersseman), "Caballería Ligera" (F. Von Suppé), "Russian Mood" (Bob

Gay, Marcel Peeters) eta "Jaialdia" (Iñaki Urkizu).

Badira urte batzuk Eibar eta Debako Musika Bandek elkartruke programari ekin ziotela eta horren testuinguruan kokatu behar dugu asteburu honetako bisita. Orain dela hilabete gutxi batzuk eibartarrak izan ziren Deban eta, orain, berriz, kostako bandaren kideak etorriko zaizkigu bisitan. Kontzertu-




tua amaitzean, Eibarko Jatu-nak elkarte gastronomikoan


afaria emango diete Debako musikariei.

laztanak emoten...


Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena (bikoteak...) 8 euro (...eta kitto!ko bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguazten aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n.




Zorionak, PAUL Alberdi, lau urte egitterakuan. Muxu haundi bat etxekuen partez. Segi holan, horren zoriontsu.




Zorionak, AINHIZE Egurrola Mugerza, domekan urte bi egingo dozuzelako. Muxu bat etxekuen partez.




Zorionak, MARKEL Garrido, lau urte betetzian. Familixaren partetik, batez be Danel, Unax eta Ekainen partez.



Zorionak, MARKEL, gaur sei urte betetzen dozuzelako. Muxu haundi bat famelixaren partez.



Zorionak, OSKAR, martitzenian urtiak bete zenduazeten-eta, eta NAHIA, atzo urtebete egin zendualako. Muxu haundi bana danon partez.



Zorionak, NEREA Gorostiza Ojanguren (12 urte) eta MARIA Zabaleta Ojanguren (urtebete) domekan urtiak egongo dozuezen-eta. Familixaren partez.

JAIOTAKOAK

- Egoitz Sánchez Isasti. 2010-IV-11.
- Erika Cuesta Jussic. 2010-IV-11.

HILDAKOAK

- Eva Keilpart Jenkner. 91 urte. 2010-IV-14.
- German Pérez Pujana. 82 urte. 2010-IV-14.
- Andres Fernández Ramos. 77 urte. 2010-IV-14.
- Jesus Trokaola Baskaran. 79 urte. 2010-IV-17.
- Margarita De la Cruz Hernández. 78 urte. 2010-IV-18.
- Carlos Plazaola Oñatibia. 83 urte. 2010-IV-19.
- Julia Briongos Sendino. 86 urte. 2010-IV-20.

zinea Coliseoan

23an, 20.30etan; 24an, 17.00, 19.45 eta 22.30etan; 25ean, 17.00 eta 20.00etan; 26an, 20.30etan.

"Más allá del tiempo"

Zuzendaria: Robert Schwentke
Aktoreak: Rachel Adams, Eric Bana, Arliss Howard, Ron Livingston...



Clarek bizitza guztia darama Henryrekin maiteminduta eta uste du elkarrekin bizitzera destinatuta daudela. Henry denborako bidaiaria da, urteetan aurrera eta atzera egiten duena, inongo kontrolrik gabe. Abisatu barik banatuko dira, berriro batzeko.

"Desde París con amor"

Zuzendaria: Pierre Morel
Aktoreak: John Travolta, Charlie Wax, Jonathan Rhys Meyers, James Reece...



Parisen Estatu Batuetako enbaxadako langile gazte batekin atentatu handi bat prestatzen dihardutela jakiten du. FBIko agente batekin elkarlanean, terroristak zeintzuk diren eta biktirik ez izateko ahaleginean jardungo du peskizan hara eta hona.

"Alicia en el país..."

Zuzendaria: Tim Burton
Aktoreak: Mia Masikowska, Johnny Depp, Helena Bonham, Alan Rickman...



Aliciak 19 urte ditu eta mundu magikora bueltatuko da, bertan Kapelugile Zorua, Untxi Zuria, Tweedledee eta Tweedledum, Beldarra eta Chesireko Katua lagunekin berriro batzeko. Erregina Gorriaren erreinuari egingo die aurre.

"Still walking"

Zuzendaria: Hirok. Koreeda
Aktoreak: Hiroshi Abe, Yui Natsukowa, Kazuya Takahashi, You...



Heldutako seme-alabak, bakoitza bere familiarekin, adineko aita eta ama bisitatzen doaz txikitzen euren etxea izandakora. Anaia nagusia hil zela hamabost urte betetzen dira eta, hori aprobetxatuz, batuko dira berriro. Gauzak aldatu egin dira urteekin.

Ego-Ibar

horoskopoa

ARIES

Kolore bereziak zure bizitzan. Sekula ikusi ez dituzunak edo, ikusita ere, aurretik asko gustatu ez zaizkizunak. Ortzadarreko bizienak izango dira.

TAURUS

Datorren asteko egun bakoitza aurrekoa baino hobea izango da. Beraz, pentsa nola egongo zaren aste amaieran... pozez zoratzen!

GEMINI

Zerbait ustela jango duzu eta ez dizu batere onik egingo. Argi ibili ahora zer eramaten duzun, gutxienez aztertu pixka bat, usaindu ezazu.

CANCER

Zure kezka handiena praka horiekien zein zapata jartzea bada, trankil egon zaitezke. Zuk bai daukazula zuk bizipoza. Bejondeizula!

LEO

Polen gorrotagarria! Alergia ez bada, dena hori-hori eginda dagoela da... ez dizu pakean uzten udaberria. Baina, zer egin bere aurka?

VIRGO

Zoragarria, guztiz zoragarria! Holakoa izango duzu astea, emozio eta poztasunez betea. Zergatik? Jakingo duzu bere momentuan.

LIBRA

Afari ederraz gozatuko duzu lagun berezi batekin. Janari artean pasioa haziko da eta... nola amaituko da hori guztia? Zuek ikusi.

SCORPIUS

Lagun bati berri txar bat esatea ez da batere eroso, eta zuri tokatuko zaizu oraingoan. Psikologoarenak egin beharko dituzu berarekin.

SAGITTARIUS

Nola aldatzen diren gauzak egun batetik bestera. Horrela ezin duzu inolako etorkizunerako planik egin. Bizi momentua beraz.

CAPRICORNIUS

Sekretuak beti (edo ia beti) irtetzen dira argira, beraz, hobe duzu zintzoa izan eta egia esatea beti. Beno, seguru zu zintzoa zarela.

AQUARIUS

Lagunak brometan dabilta eta zu ez zara konturatzen. Umore gehiagorekin hartu behar duzu bizitza, irifarre gehiago egin.

PISCIS

Gai baten inguruan ez badakizu ezer, zergatik eztabaidatzen duzu? Besteen aurrean txarto gelditzen dena zu zara, zure ezjakintasuna.

Barixakua 23

ANTZERKIA

20.30.- "Aitarekin Bidaian" (Hika Teatroa). Sarrera: 8 euro. Coliseoan.

Zapatua 24

ATE IREKIAK

11.00.- Uni Eibar-Ermua BHI ikastetxearen ate irekien jardunaldia (Eibarko egoitzan, Otaola hiribidean eta Ermuko egoitzan, Ongarai auzoan).

ZAPATUKO IPUINA

18.00.- Angel magoaren ikuskizuna (Angel Pérez Murielekin).

KONTZERTUA

18.00.- Debako Musika Bandaren kontzertua. Coliseoan.

KONTZERTUA

22.30.- Kokein (Eibar) eta Xarma (Ondarru). Tallarra gaztetxean.



Domeka 25

BERTSO ESKOLEN EGUNA

10.30.- Gipuzkoako Bertso Eskolen VI. Eguna. Untzaga plazan elkartuko da jendea. **11.00.-** Ongietorri aureskua Pantxika eta Kezka dantza taldearekin, Hankamotxak bertso-eskolakoen agurra. **11.15.-** Taldekako jolasa, Adolfo Jainaga trikitixa eskolak alaituta. **12.30.-** Antxua Bentan Batukadarekin batera, kalejira. **13.30.-** Bazkaria. **14.30.-** Zezenak eta poniak, Ustekabe fanfarriak girotuta. Kalejira Coliseoraino. **16.30.-** Bertsound System hip-hop ikuskizuna Coliseoan.

Astelehena 26

NAGUSIEN HAMABOSTALDIA

16.00.- Pertsona nagusien ibilaldia, Juan Luis Mugerzaren oroimenez. Untzaga-Azitaín.

Martitena 27

IKASTEN

10.00.- "¿Por dónde camina la literatura contemporánea? Un viaje a través del relato breve", José Domingoren eskutik. EPAn (Isasi, 39).

NAGUSIEN HAMABOSTALDIA

16.00.- Txokolate-jana San Andres egoitzan (bertakoentzat).

HITZALDIA

19.00.- Kirmen Uribe (Espainiako Narratiba Saria): "Nola egin zen Bilbao- New York- Bilbao". Portalean.

Eguaztena 28

NAGUSIEN HAMABOSTALDIA

17.30 eta 21.00.- Liburutegira eta Armagintzaren museora bisita gidatuak. Portalean.

UMEEN DANBORRADA

19.00.- Umeen danborradarako entsegua (Bittor Sarasketa, 7).

Eguena 29

IKASTEN

10.00.- "Introducción a la innovación" (sarrera libre), Equiliaren eskutik. EPAn (Isasi, 39).

NAGUSIEN HAMABOSTALDIA

10.30.- Mendi ibilaldia Atxondora. Irteera Ego-Gaineko geltokitik.

EGO IBAR ZINE KLUBA

17.30 eta 21.00.- "Still walking" (Zuz: Hirokazu Koreeda). Sarrera: Euro bi. Hezkuntza Esparruan.


DENBORAPASAK

SUDOKUA

2			5		1			7
	6						1	
		5		9		3		
5			1	6	9			3
6			3	8	7			4
		2		3		6		
8							9	
1			7		4			8


6	4	5	2	8	3	9	7	1
2	3	8	9	1	7	6	5	4
1	7	9	6	5	4	8	3	2
8	6	6	3	4	2	1	9	7
9	1	3	5	7	8	2	4	6
7	2	4	1	8	6	3	5	5
5	8	1	4	2	8	7	6	3
3	9	2	7	6	5	4	1	8
4	6	7	8	3	1	5	2	9

AURREKOAREN EMAITZA



erakusketak

- Apirilaren 30era arte
CANDIDO BARCO-ren "Laos" argazki erakusketa. Klub Deportiboan.
- KLUB DEPORTIBO**-ko argazki taldearen "Aratosteak" argazki erakusketa. *El Ambigú tabernan.*
- JOSE LUIS IRIGOIEN**-en argazki erakusketa. Arteka liburudenda (Artekale, 20. Durango).
- Maiatzaren 2ra arte
DAVID LOPEZ SIMON-en egurrezko artelanen erakusketa. *Topalekuan.*
- EIBARKO ARTISTEN ELKARTEA**-ren taldekako erakusketa. *Portalean.*
- EIBARKO IGNAZIO ZULOAGA**ko ikasleen EGUNGO ISLAK. *Portalean.*
- Maiatzaren 4ra arte
IMA ELORZA (eskulturak) eta **IMANOL ELORZA** (olioak). *Untzaga jubilatuen etxean.*



sarrerak
salgai

ANTZERKIA: "Aitarekin bidaiak".. Apirilak 23, 20.30.
DANTZA: "1.01". (Dantzaz Konpainia). Apirilak 30, 20.30.
AFARIA ETA BERTSO-DESAFIOA: Maiatzak 7, 21.30.
Bide-Alde elkartearen. Sarrerak ...eta kittol-n (Urkizu, 11).

farmaziak

- 23, barixakua**
EGUNEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)
GAUEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)
- 24, zapatua**
EGUNEZ **Urizar** (J. Etxebarria, 7)
GAUEZ **Azkué** (T. Etxebarria, 4)
- 25, domeka**
EGUNEZ **Azkué** (T. Etxebarria, 4)
GAUEZ **Alberdi** (Zubiaurre, 9)
- 26, astelehena**
EGUNEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)
GAUEZ **Cortina** (Zubiaurre, 29)
- 27, martitzena**
EGUNEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)
GAUEZ **Ugarte** (Sta. Zezilia, z/g)
- 28, eguaztena**
EGUNEZ **Las Heras** (Sostotarren, 20)
GAUEZ **Ibarrondo** (Zeharkalea, 2)
- 29, eguena**
EGUNEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)
GAUEZ **Aranburu** (Gipuzkoa etor., 46)
- 30, barixakua**
EGUNEZ **Larramendi** (Calbetón, 19)
GAUEZ **Azkué** (T. Etxebarria, 4)

telefono jakingarriak

- SOS delak112
- Pegora010
- Udaletxea943 70 84 00
- Portalea.....943 70 84 39
- Udaltzaingoa.....943 20 15 25
- Mankomunitatea943 70 07 99
- Debegesa.....943 82 01 10
- KIUB943 20 38 43
- Epaitegia943 03 34 00
- Iberdrola901 20 20 20
- Naturgas902 12 34 56
- DYA Larrialdiak.943 46 46 22
- Gurutze Gorria..943 22 22 22
- Mendaro osp.....943 03 28 00
- Anbulategia.....943 03 25 00
- Torrekuia.....943 03 26 50
- Errepideak.....902 11 20 88
- Ertzaintza943 53 17 00
- Eusko Tren902 54 32 10
- Pesa902 10 12 10
- Taxiak.....943 20 30 71
-943 20 13 25
- Alkohol.Anon. ..629 14 18 74
- Al-Anon/Alateen 650 26 59 63

autobus ordutegiak

EIBAR-DONOSTIA. Lanegunak: 07.00, 08.00, 08.30, 09.00 eta 09.30etatik 20.30etara ordu. Zapatuak: 07.00 eta 08.30etatik 20.30etara ordu. Jaiegunak: 08.30, 12.30, 13.30, 15.30, 18.30 eta 20.30. **DONOSTIA-EIBAR.** Lanegunak: 07.00, 07.30etatik 15.30etara ordu, 15.00, 15.50etatik 18.30etara ordu, 19.30, 20.30 eta 21.00. Zapatuak: 07.00, 07.30etatik 20.30etara ordu, 21.00 eta 22.00. Jaiegunak: 08.30etatik 18.30etara bi ordu, 19.30, 21.00 eta 22.00.

EIBAR-BILBO. Lanegun eta zapatuak: 06.40etatik 20.40etara ordu. Jaiegunak: 07.40-etatik 21.40etara ordu. **BILBO-EIBAR.** Lanegunak: 06.40etatik 21.40etara ordu erdi. Zapatu eta jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu erdi.

EIBAR-GASTEIZ. Lanegunak: 07.00etatik 21.00etara ordu eta 06.15, 10.15, 14.15 eta 18.15. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30.

GASTEIZ-EIBAR. Lanegunak: 06.30etatik 20.30-etara ordu eta 12.00, 16.00 eta 20.00. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30.

EIBAR-IRUÑEA. Lanegunak: 07.45 eta 13.50. Jaiegunak: 07.45 eta 18.00. **IRUÑEA-EIBAR.** Lanegunak: 11.00 eta 18.00. Jaiegunak: 11.00 eta 21.00.

EIBAR-ARRATE. Zapatuak: 14.15. Jaiegunak: 09.00, 10.00, 11.00, 13.00 eta 18.00. **ARRATE-EIBAR.** Zapatuak: 14.45. Jaiegunak: 09.30, 10.30, 11.30, 13.50 eta 18.30.

EIBAR-ELGETA. Lanegunak: 13.30 eta 20.30. Jaiegunak: 12.00 eta 19.00. **ELGETA-EIBAR.** Lanegunak: 14.00 eta 20.50. Jaiegunak: 12.30 eta 19.30.

EIBAR-MENDARO. Lanegunak: 06.20 eta 07.05etatik 22.35etara ordu erdi. Zapatuak: 07.00etatik 21.00etara ordu. Jaiegunak: 08.00etatik 21.00etara ordu. **MENDARO-EIBAR.** Lanegunak: 06.45etatik 21.15etara ordu erdi eta 21.55. Zapatu eta jaiegunak: 07.45etatik 20.45etara ordu eta 21.55.

tren ordutegiak


EIBAR-DONOSTIA. Egutero: 08.13etatik 22.13etara ordu, 10.35 eta 21.35. Lanegunak: baita 06.15 eta 07.13. **DONOSTIA-EIBAR.** Egutero: 07.47etatik 20.47etara ordu, 9.20 eta 20.20. Lanegunak: baita 05.47 eta 06.47.

EIBAR-BILBO. Egutero: 08.13etatik 22.13-etara ordu, 10.36 eta 21.36. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **BILBO-EIBAR.** Egutero: 06.57etatik 20.57etara ordu, 09.34 eta 20.34. Lanegunak: baita 05.57.

lehiaketak


- **Lip Dub lehiaketa.**
Gaita: Eibarko merkataritza eta ostalaritza. Informazioa: *Apirilak 29ra* arte, www.eibar.org helbidean.
- **Sanjuanak 2010 Eibarren kartel lehiaketa.**
Informazioa eta lanak entregatzea: *Maiatzak 14ra* arte, Pegoran.
- **Alkohol Gehiegikeriaren Kontrako Umorezko Pegatina Lehiaketa.**
Informazioa eta lanak entregatzea: *Maiatzak 14ra* arte, Pegoran.
- **2010-2011 Eskola Agenda argazki lehiaketa.**
Norentzat: 12 eta 18 urte bitarteko eibartarrentzat. Informazioa eta lanak entregatzea: *Maiatzak 14ra* arte, Pegoran.
- **Armeria Eskola: mendeurren irudia aukeratzeko lehiaketa.**
Lanak entregatzea eta informazioa: Armeria Eskolan, *maiatzaren 10etik 28ra* bitartean.
- **Li (buru-hausgarriak).**
LH-ko 2. mailatik aurrerakoentzat. Noiz: *apirilaren 20tik ekainaren 14ra* arte, Liburutegian.

Hortzordeekin arazoak?



Goiko hortzordeak

- ✓ Janarien zaporea blokeatzen du
- ✓ Plastikoa artifiziala
- ✓ Itsasgarri likatsuak
- ✓ Hozkada ahula
- ✓ Goragaleak
- ✓ Egoera deserosoak



Goiko aldeko implanteak

- ✓ Ahosabai garbia
- ✓ Plastikorik gabe
- ✓ Itsasgarririk gabe
- ✓ Hozkada indartsua
- ✓ Goragalerik gabe
- ✓ Ustekaberik gabe

Zure hortzordeek jaterako oztopo bihurtu zaizkizu eta zure irribarrea eta itxura lehengoak ez izatea ekarri dizkizute? Orduan, zertarako xahutuko duzu zure dirua adabakietan? Badira soluzio BERRIAK inplanteetarako aurrez baztertutako lagunentzat.

Deituiguzu 902 468 209ra eta korreoz bidaliko dizugubestelako informazio guztia.

Jan eta barre egitea zoragarria izan daiteke berriro!

Ibarbea Zehar., z/g (Rialto Zehar.) EIBAR www.esteticadelasonrisa.com



Andoni Guisasaola Ron Dokorea
R.P.S. 1566/5

Bista Eder nº11

SU BERON EIBAR

Kafetegia

Edaritegia

90 468 209 2000 0172 0108

- Pintxoak
- Bokatak
- Ollaskoak
- Kodilloak
- Kazuellitak
- Bazkariak
- Afariak
- Plater konbinatuak
- Etxera eramateko enkarguz

KAFETEGIA

Astegunetan eguneko menua dugu

EDARITEGIA

TEORIKA ATERATZEKO IKASTARO TRINKOAK

Materia arriskutsuak / C.A.P.

Merkantziak eta bidaiariak garraiatzeko
nazioarteko agentzia **ziurtagiriak**
lortzeko ikastaroak




Estaziño kalea, 8
Tel. 943 70 23 78

BERRIA

T. Etxebarria, 7
Tel. 943 70 23 84



ZERBITZUA



ADMINISTRAZIOA



BILERAK



GESTIOA

EUKI

T. Etxebarria, 1 - behea Tel. 943 20 42 99

KOMUNITATEAK